

# Don't be Dummy!

## Zuk ez duzu ordezkorik

**Don't be Dummy. Zuk ez duzu ordezkorik** Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak trafiko-istripuak prebenitzeko sortutako ekitaldi ibiltaria da eta Euskadiko ikastetxe ez unibertsitarioetako gazteei zuzenduta dago.



### Nor da Dummy?

Dummy, 3Dn sortutako avatar elkarreragilea, da ekitaldiko gidaria. Dummy Crash bat auto ekoizleek beren eredu berrien segurtasuna probatzeko erabiltzen duten manikia da.

Gure giza sendotasunera hurbiltzen den materialez sortua, hainbat egoeratan ordezkatzeko gaitu.

Ekitaldian zehar Dummyk ondorio zehatz batera eramango dituen egoera eta emozio ezberdinak biziko ditu: "zuk ez duzu ordezkorik".

Prebentzioa bukaera dramatikoak ekiditeko irizpide ukaezin gisa ageri da.



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

## Ekitaldia

Ekitaldia Dummy avatar birtualak gidatzen du eta errepideari lotutako profesionalen zuzeneko lekukotzak (ertzaintza, polizia munizipala, suhiltzaileak, larrialdietako teknikariak...), trafiko-istripuetako biktimak eta beren senitartekoen testigantzak eta ikusentzunezkoak uztartzen ditu.



Ekitaldia ibiltaria da, herriz-herri egiteko pentsatua, antzoki edo zine areto baten berezitasunak berregiten dituen leku konkretu batzuetan gauzatzen da. Helburua arreta eta hausnarketa bidera ditzakeen giroa sortzea da.



## Zergatik *Don't be Dummy?*

Gazteria trafiko-istripuak izateko arriskua areagotzen duten faktore multzo baten jabe da. Alde batetik gazte psikologiari lotutako faktoreak daude (exhibizionismoa, norberaren gaitasunen neurri kanpokotasuna, autobaeztapena, arriskuaren topaketa, talde presioaren eragina) eta beste alde batetik aurreneko urteetako gidatze esperientzia eza.

2016an 14tik 24 urte bitarteko 2.837 gazte trafiko-istripu batean nahasita egon ziren Euskadin. Estatuan, 2015eko estatistikak erakusten duen datuak hotzikara sortzen du: astero hiru gazte hil ziren trafiko-istripu baten ondorioz.

*Don't be Dummy*-k motorezko ibilgailu baten gidari izateko zorian dauden, edo lagunekin batera ibilgailu batean bidaiari izango diren, gazteak errepideak dituen arriskuen inguruan eta aurretiaz har daitezkeen neurrien inguruan kontzientziatzeko beharrari erantzuten dio.



## kontaktua

*Don't be Dummy* Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak kudeatutako dohako ekitaldia da.

Informazioa eskatu edo kontratatzekeo kontaktua: [maitearroita@baleuko.eus](mailto:maitearroita@baleuko.eus) | 944 668 610 | 